

editoriala

# EAJK aukera egin dezake

**A**uzitegi espainiar batek bertan behera utzi berri du euskal instituzio batek bere eskumenez baliatuta hartutako erabaki bat eta horrek, besteak beste ELA eta LAB sindikatuek salatu dutenez, autogobernuaren aurkako eraso bide judizialera ere zabaldu dela esan nahi du. Ez da gertaera isolatu bat, Euskal Herriaren kontrako erasoaldiaren barruan kokatzen den gertaera baizik, zeinak bide politiko, sindikal, linguistiko, hezitzaile eta, ikusten denez, judizialari ere jarraitzen dion.

Ezker abertzaleak eta zenbait sektore sindikalek egoera honi aurre egitearren elkarrekin hausnar egiteko proposamena egin diote euskal nazionalismoari oro har, baita Euskal Hérritik «gogor erantzuteko» beharra adierazi ere.

Bizkitartean, Jose Antonio Ardanza EAeko lehendakariak «beste *loapizazio* baten bezperan» ez egotea espero du, eta ez duela gehiago hitz egin nahi gaineratu du, horrela «eraso askoren jomuga» izatea saihesteko. Bere lehendakariorde eta ordezkogai Juan Jose Ibarretzek askoz adierazpen gogorragoak egin ditu: «Euskal gizartean eta instituzioetan izango dugun autogobernu maila euskal herritarren beren bondatarean araberakoa izango da beti». Kontuan izanik hainbeste urtetan eta egoera desberdinetan Madrilék Gasteizko Legebiltzarren erabaki maioritarioei behin eta berriro ez entzunarena egin diela, zaila da asmatzea Ibarretxeren adierazpena adarjotzea den ala, Euskal Herriak nazio gisa duen etorkizunaren alde, EAJK azpijoakoaren bideari utzi eta crakunde abertzaleekin indarrak batzeko erabakia hartu duen.

Tamalez, historiak frogatu egin digu Juan Jose Ibarretxeren hitzak benetako edukirik ez duten hitz potoloak baino ez direla izango. Nahiago genuke erratu dugula aitortu behar bagenu. EAJK, berriro ere, berea du aukera.

hoy escribe

Jose Luis ALVAREZ ENPARANTZA «TXILLARDEGI» / Idazlea

# Mestizaje baten kronika

**G**ure arteko «saverkoiek» etengabe goraputzen dizkigute «mestizajearen» loriak. Eta adibide batez hori argitzekotan, gure begien aurrean eta Europan gertatu den famatuena gogoraziko dugu laburki.

Letoniako kasoa azalduko dugu txarneguzaleen ohotan.

Gaur egun Letonia (Latvia diote berek) Errepublikak Askatua da, mende erdi batez Errepublikak Sobietikoa izan ondoren.

1920an errusiarrek %12 basterik ez ziren. Errejimen sobietarra erortzean aldiz, %34. Hiriburuan, Rigan alegia, are nabarmenago agertzen zen aldaketa demografikoa; %9 errusiar 1925ean; %47, 1989an.

50 urte horietan barrena, letoniarrek ez zuten inolako eskubiderik izan beren demografia kontrolatzeko. Hain zuzen ere, 50 urte luzean barrena, errusieraz basterik ez mintzatzea «internazionalizatza» hartzen zen; eta letonieraz mintzatzea eta letoniarasunari eutsi nahi izatea, «chauvinismo burgestikitza».

Gorbatxov agintera helitzean, horretara, Letonia errusiartuta zegoen. Riga bera barne. Independentzia berreskuratzekoan, adibidez, Rigako eskolen banaketa hau zen: %64 errusieraz, %36 letonieraz. Teletistik lau kate zituen: hiru errusieraz (biga Moskutik ari, eta bat errusieraz Rigatik beretik), eta bat bakarririk letonieraz.

Antzeko egoera zeukaten prentsaren alorrean; 197 aldizkari errusieraz Letonia



osoan, 45 elebidun, eta 38 bakarririk letoniera hutesez.

«Mestizaje» horren emaitzak ezagunak dira. 1989ko estatistikek erakusten dutenez, rigatarren arteko %77k dakite errusieraz (orain dela 9 urte, alegia). Baina Rigara joandako errusiarren artean, %20k basterik ez dakite letonieraz. Oro har, beraz, Rigako letoniarrek badakite errusieraz, hori bai; baina errusiarrek letonieraz, ez.

Horrek azaltzen ditu ongienik Janis Valdmanisek (1995) esandakoak: gaur egun Letoniako biztanleen artean, %63k ez dakite letonieraz mintzatzen, ezta maila aruntean ere. Nazio-hizkuntza, sobietar garaian, «folklorist decor» basterik ez baitzen. Diglosia gorrian paratua, hizkuntzak ez zuen funtziorik. «Fundamentalismoak», utikan!

Errusiera, hitz batez, hizkuntza «internazional» gisa aurkeztua, funtsean hizkuntza «intra-nazionala» bihurtu zen Letonian; eta bertako hizkuntza «intimitatearen» hizkera basterik ez

zen. Gehienez, nazio-kulturaren ikur atzerakoi. Errusiera mestizajearen tresna gardena, aldiz, askatasunaren eta geroaren hizkuntza.

Orain, dirudenez, errusieraren aldeko bolada igarota, ingelesarena heldu da... Ingelesadunek ere aisago onartzen baitute hau letoniararen azkartzea baino.

Rigan bertan, ingelesez irakasten duten ikasgu batzu sortu dira. Eta joera hau oso garbiki agertzen da eskolako hizkuntzaren alorrean.

Abertzaleek, lehenengo hizkuntzatzat, errusieradunen kontra jotatuz, letoniera bultzatzen dute.

Eta orain arazoak bigarren eta hirugarren hizkuntzen hautaketakoan datoz. Bigarren hizkuntzatzat halako «kontsentsu» bat bide dago: ingelese gailen. Erro sakonak ditu alemanak Rigan, ordea; eta alemana nahiago luketenak ez dira falta.

Zer egin hirugarrenaz? Errusiar jatorrikoek errusiera bultzatzen dute. Jakina. Baina beste antzek (eta oso bereziki sobietar mende-erdiaz ezer jakin nahi ez duten

letoniarrek), «inguruko» hizkuntza bat bultzatzea nahiago dute. Eskandinaviar hizkera bat, esate baterako, (suediera, norvegiera, suomiera); edo-ta, baltikoak (ahaide hurbila duten lituaniera, batetik, edo-ta estonianera).

Hizkuntz hautaketa hori arazo «strategikoa» dela aitortzen dute deplauki; eta arrisku handikoa. Eta nazioetasunaren beraren etorkizuna dagoela balantzian.

Gauza bat dago garbi, ororen gainetik: 50 urtez errusierak atxiki zuen nagusitasuna, amaitu egin dela betirako.

Borroka zaila dute letoniar edo Kurdistanen ikusitakoek bezala) ez baitituzte «demokratikoa» eta «mestizajekoiki» mendrenik ere asaldatzen.

Ez horixe. Mestizajekoikiak, han eta hemen, *kar*-aren morroi leialak basterik ez dira. Askotan gaizki mozturrotuak.

«Progre» hauei (fatxa mota guztietako laguntzoz inguratirik Agiriak sinatzeko batera lotsarik ez duten horiei). Inperioak eta Pentsamendu Bakarra ongi joango diren artean, zapalduak oro bost axola! Ahe Caesar!

Eta guri, beraz, egurra. Galanki!

Baina egur demokratikoa eta txarnegutua. Hori bai!

## lópez & pérez

